



## Urteurrenerako musika egitaraua aurkeztu du Tolosa 750 Fundazioak

**ESTILOAK** ▶ Musika  
klasikoko arlokoak eta  
pop-rock kontzertuak  
antolatu dituzte

**BEREZIA** ▶ «Kontzertu  
itzela» iragarri dute  
uztailerako; Berazubi  
futbol zelaietan izango da ▶ 3



Herriko musikariek egindako lana nabarmentzeko baliatu nahi dute urteurrena Fundaziokoek. N. LATABURU



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**RAMON GARATE** ▶ EMF-KO MEDIKUA

### «Talde osoari emandako saria da»

Antxon Bandres saria jaso berri du  
tolosarrak 20 urteotako lanagatik ▶ 4,5

**BERASTEGI** ▶

Inauteri  
Eguna  
antolatu  
dute ▶ 6

**LEITZA** ▶

Nafarroako  
Bertso  
Txapelketaren  
atarian ▶ 7



[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

Nahi duzunaz solastuko gara.

Gura duzunaz egingo dogu berba.

Nahi duzunaz hitz egingo degu.

Nahi duzunaz mintzatuko gira.

Euskal Herriko txoko guztietara iristen da **elkar megadenda**. 14 denda eta 150.000 erreferentzia baino gehiagorekin, eskaintza zabalena aurkituko duzu liburu, musika, edo jolasetan. **Kultura** guzti-guztia zure esku.



elkar ezagutzen dugulako

## ERAKUSKETA ▶




**San Vito Altivole, Treviso.** Carlo Scarpak bere obraren garapenerako Japoniara egiten zituen bidaia ugarietako batean hil zen, eskailera batzuetatik erorita; 76 urte zituen. Polanek ebeko *zen* lorategi bat kokatzen du bere hilobiaren ondoan, honekin Japoniagatik zuen miresmena ordezkatu nahirik. PACO POLAN



**Bartzelonako Balmes eta Gran Via de la Corts Catalanes-en arteko bidegurutzea.** Bidegurutze honetan hil zen Antoni Gaudi, tranbiak harrapatuta. Seinaleak istripua ekiditu nahi du. PACO POLAN



**Via Cantu, 62.** Giuseppe Terragni Via Cantu-ko 62an hil zen. Erokeriak jota, bere arrebarren bila zihoala eskaileretan erorita zendu zen, buruan kolpea hartuta. Burukoak lagun izan zezakeen. PACO POLAN



**Roquenbrune-Cap-Martin.** Le Corbusier arkitekto frantziarra ur hauetan hil zen. Le Corbusierrek bihotzekoa jasan zuen medikuen aholkuei jaramon egin gabe uretan bainatzen ari zela, eta bertan ito zen. Flotagailuak bizia salbatuko ote zion irudikatu du argazki honetan autoreak. PACO POLAN

## ‘Heriotz eraikiak’ Aranburu Jauregian

Zenbait arkitekto famaturen heriotzak berreraikitzen ditu  
Paco Polanek Aranburun ikusgai den argazki erakusketan

INIGO ASENSIO

Heriotza aitzaki hartu du Paco Polan argazkilaria eta margolari iruindarrak egun hauetan Aranburu Jauregiko erakusgelan ikusgai den argazki bilduma sortzerakoan. Tolosara otsailaren 3an iritsi zen bere lana, eta martxoaren 11 arte iraungo du erakusketak, abendutik urtarrilerira Iruñeko Gotzolekuan egon ondoren.

Erakusketaren izenburua, *Heriotz eraikiak*, ez da besterik gabe aukeratua izan. Hain zuzen ere, heriotza da Polanek bere obraren oinarritzat aukeratu duen elementua. Hainbat arkitekto famaturen heriotzak aztertu ondoren, ezbeharrak gertaturiko lekuetara jo eta haien zentzea eraikitzea, berreraikitzea hobe esanda, izan du helburu iruindarrak. Honela bizitzetik hiltzera dagoen pau-

so txikia islatu nahi izan du autoreak, zenbait erabaki hartzeak, edota ez hartzeak, izan dezaken eragin neurrigabea agerian utziz. Gizakion oldarrak, ohargabeak, gaudenetik zein hurrun eraman gaitzaketen irudikatzen du Polanek, ikusleak gogoeta sakonera eramanez. «Arkitektura argazki baten bidez arkitekto famatu baten heriotz gogorra islatzea omenaldi lotsagabea» dela dio

autoreak. Bestalde, aukeraturiko pertsonai hauekin «heriotza bera lotsagabeagoa» izan dela esan du artistak, beraien aportazio artistikoak kontuan izan ez dituela, beste edonoren moduan tratatuz. Alde horretatik, Polanek arkitekto hauekiko duen begirune eta estimazio ikaragarria ikus daiteke. Horrela, bere koadro bakoitza heriotza bera da, izatek ez izaterako urrats estua, ikuspuntu hausnartu batetik sortua. Kontatzen duena historia xumeak dira, pertsonaia garrantzitsuen historia xumeak; heriotza xume ulertuz.

Eraiketa lana da, hain zuzen ere, heriotz bakoitzean elementu arrotza barneratzen duela, ziurgabetasun printzipioari keinu eginez. Uneoro inguruan dugunak gertakarien zentzua alda dezakela berretsiz, eta argazkietan nabari diren ele-

mentuetan heriotza saihesteko ahalmena finkatuz. Ez du ikuspuntu estetiko gehiegi lantzen, ez da teknikan edota plastizitatean bere artea oinarritzen duen horietakoa. Aspektu horretan sinpletasuna erabatekoa da. Argazkietan sarturiko elementu arrotz horiek, hauei lapurtzen dieten sinergiaritasunak ez du Polan kezkatzen, argazkiek nahikoa historia dutelako beren atzean, eta beren kontzeptismoak eredu prosaiko garrantzitsuak ezkutatzen dituelako. Flotagailuak, burukoak, Gaudiren zebra-bide seinaleak edota etxeko *zen* lorategiak helburu zehatza dute iruindarraren koadroetan, heriotz kasu bakoitzean, arkitektoaren bizitza salbatzea. Paco Polanek erakusketan hobeto ulertzeko, Aranburu Jauregiko argazkiak aztertzea onena.





## BERASTEGI ▶ INAUTERIAK

# Mozorroak jantzi eta kalera festara

Aldin kultur eta kirol elkarteak eta Guraso Elkarteak antolatuta, etzi Inauteri Eguna ospatuko dute herrian

INIIGO TERRADILLOS

Herrian bazen orain 40 bat urte Inauteriak ospatzeko ohitura, eta orain hiru urte tradizioa berpizteko asmoarekin, berriz ere ekitea pentsatu zuten, «ur-tetan galdutakoa berreskuratu eta herriari bizia emateko». Garai hartan antolatzen zuten egitaraua bete-betean mantentzen ez badute ere, mozorroak eta jai giroa nagusi izaten dira, eta hala izango da etzi antolatu dute Inauteri Egunean ere.

Egun horretan, Aldin kultur eta kirol Elkarteak eta Guraso Elkarteak antolatuta, 17:30ean herriko dantzari txikien saioa izango da, eta ondoren herriko txikienek txokolatada hartuko dute Urepele gazte elkartearen,



lazio Inauterietan ederki igaro zuten gazteboek. HITZA

Guraso Elkarteak antolatuta. Musika eta mozorro artean «primerako giroa» sortzea espero dela azaldu dute antolatuzaileek.

Arratsalde gazteboe zuzendua izango bada, gauean nagusien txanda izango da. Eta, azken bi urteetan egin duten moduan, herri afaria egingo dute, Aldin kultur eta kirol elkarteak antolatuta. Antolatuzaileek ezinbestean bete beharreko baldintza ezarri dute afarira joan ahal izateko, «mozorrotuta eta festarako gogoz» joatea. Halaber, herritar guztiak gonbidatu dituzte Inauteri egun bereziko ekitaldietan parte hartzera.

### Aldizkaria egiteko laguntza

Herri afarian biltzen duten diruaren zati bat herriko aldizkaria egin ahal izateko bideratuko dutela iragarri dute.

Aidanen 2006ko urtekariak abuztuan ikusiko du argia, eta jada hirugarren alea izango da. Urtean zehar herrian gertutako pasadizoak bilduko ditu aldizkariak, eta historia eta herriar esanguratsuenak gogoratuko ditu.

## BERROBI ▶

## Ipuin kontaketa saioa gaur liburutegian

Rai ipuin kontalariaren saioa izango da gaur, 17:15etik, aurrera liburutegian.

## OREXA ▶

## Tutorearen bisita izango du gaur KZgunek

Udaletxe ganberan kokaturiko KZgunera gaur etorriko da tutorea, 09:00etatik 13:00etara.

## TOLOSA ▶

## Gaur ez da zine-klub saiorik izango

Gaurko zine-klub saioa bertan behera utzi dute, Zalduita bezperako danborrada entsegua dela eta. Horren ordez, bihar, 19:00etan, Hitchcock-en *Rebeca* eskainiko dute, Kultur Etxean.

## SOKATIRA ▶

## Federazioa, «egoera larrian» dagoen kirola indartzeko saiakeran

Ibarrako lehen saioan ikusitakoarekin baikor azaldu dira; Soka Eguna egingo dute apirillean

I. TERRADILLOS

Pasa den igandean lehen saioa eguna antolatu zuen Sokatira Federazioak Ibarra, eta bertan Euskadiko Txapelketan ari diren lau taldek hartu zuten parte. Hainbat proba burutu eta gero Gatika sailkatu zen lehena, eta bizkaitarren atzetik Abadiño, Sokarri eta Kuartan-goko Arana geratu ziren.

Federazioak HITZARI azaldu dionez, «egoera larrian aurkitzen da sokatira, eta kirolari bultzadaxo bat eman asmoz» antolatu dituzte saioak egunak. Lehena Ibarra izan bazen, bigarrena Araban egingo dute igande honetan, eta Bizkaian eta Nafarroan egiteko asmoa ere badute. Sokatira arindu eta ikusgarriago egin nahi dute zaletasuna areago-



Gatika izan zen lehena Ibarra egindako saiakeran. K. ALDUNTZIN / BERRIA

tzeko, eta hori lortu aldera probetako arauetan aldaketak egin nahi dituzte. Hain zuzen ere, saioak egunak proba moduan antolatu dituzte arauak zehaztu aurretik. Bate-tik, erretxina kendu nahi dute; eta, bestetik, tiraldiak mugatu eta gainditu beharreko neurria laburtzeko asmoa dute. «Ibarrako proban horrela egin ge-

nuen, eta bizitasuna eta azkartasuna lortzen dela frogatu genuen; gustura geratu gara ikusitakoarekin, baina aldaketak egin beharko ditugu, denak ere konforme izateko», azaldu dute.

### Soka Eguna

Federazioak sokatirari zuzenduriko eguna antolatuko duela aurreratutako du. Apirilaren 1ean izango da, Oiartzunen, eta egun horretan federatuak dauden taldeek nahiz federatu gabek hartu ahal izango dute parte. Izaskungo taldeak bertan parte hartzeko asmoa azaldu du jada.

## iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuek deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.  
**Zaintzailea.** Alegian, arratsaldero 4-6 orduz adineko bi pertsona zaintzeko pertsona bat behar da.

Harremanetarako telefonoa: 685 70 93 00.

**Tabernaria.** Goierriko taberna-kafetegi baterako pertsona bat behar da. Deitu 610 61 52 32 telefono zenbakira.

**Zerbitzaria.** Tabernarako zerbitzaria behar da Amasan. Lanaldi erdia. Interesatuek deitu 943 69 12 10ra.

## SUKALDARIA

Tolosako taberna batean pintxoak eta bokatak egiteko. Astean 20 ordu eta igandean jai.

Tel.: 660 178 183

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## LEITZA ▶ BERTSOLARITZA

# Riañok Bertso Ligako saioa du, txartel bila

Nafarroako Txapelketaren atarian jokatzeko kanporaketa fase hau

JAIONE ASTIBIA

Bertso Ligako saioak egiten ari da Nafarroako Bertsozale elkarteak, lehengo asteburuz geroztik. Datorren honetan egiten dituzte bigarrenak, Nafarroako Bertsolari Txapelketa hasterako.

Bertso Ligan parte hartzen ari diren 12 bertsolarietatik bat Diego Riaño leitzar da, atzo Bertsozale Elkartetik baieztatu zuten. Honek aurreneko saioa lehengo astean egin zuen, partaide bakoitzak bina egin behar omen ditu, bihar du bigarrena: Arribeko elkartean,

21:30ean hasita egingen duten bertso afariaren baitan.

Aurreko saioan, Baraibarren egin zutena atzo zehaztu zuten, bigarren egin zuen leitzarrik. Bihar beste aukera bat izanen du Riañok, Oskar Estanga, Jon Elizetxe eta Iñaki Alemanekin batera.

## Tartean saio puntuagarria

Lau bertsolariak bertso afarian ari dira kantari aurrean; tartean puntuagarria izanen den saioa egingen dute gai jarzaille baten esanera: «Zortziko haundian hiruna bertso ofizio-



Diego Riañok —kantari— bigarren saioa du Bertso Ligan. JAIONE ASTIBIA

ka, Zortziko Txikian beste hiruna eta, azkenik, emandako gai bati buruz nahi duten doinu eta neurrian bina bertso kantatu beharko dituzte». Ondoren, berri ere bertsoan jarraituko

omen dute, «beraiek eta jendeak hala nahi badute». Bitarte horretan epaimahaikak bere lanak egingen ditu, eguneko puntuaketak ondoren jakitera emanez. Asteburu honetan jo-

katuko den bigarren itzulia bukatutakoan, parte hartzen ari diren 12 bertsolarietatik 7 Nafarroako Txapelketara igaroko dira.

Dagoeneko, 11 bertsolari sailkatuta daude Nafarroako Txapelketarako. Atzo Josema Leitzak azaldu zuenez, «dagun hauek iazko sailkapena oinarri hartuta zuzenean ekinen diote txapelketari».

## Bi leitzar tartean

Egoera horretan dago, besteak beste, Migel Mari Elosegile leizarraren ere, iazko horretan hamaiagarren lekua eskuratu zuen eta.

Hamaika hauek eta Bertso Ligan aurreneko zazpi lekutan sailkatutakoak, 18 bertsolari dira txapelketan parte hartuko dutenak dena. Aitatu zuenez, hurrengo martxoaren 5ean egingen dute lehen kanporaketa saioa. Etxarri Aranatz, «oraindik kanporaketetako sei koteak zehaztekoak badaude ere», argitu zuenez, horretarako «aurrean, sailkapen-saio guztiak egin» behar direla zehaztu.

## LEITZA ▶ KULTURA

# Aoizek 'El jarrón roto' bere azken liburua aurkeztuko du Aurreran

Tafallarrak trantsizioa Nafarroan nola gertatu den ikertu du lan honetan

J. ASTIBIA

*El jarrón roto*, horixe da Floren Aoiz historialariaren azken argitalpena. Liburu hori aurkeztuko du bihar iluntzean, 20:00etan, Aurrera elkartean.

Lan honetan, Nafarroan Franco hil ondorengo epe hori, trantsizioa esan ohi zaion hori

nola gertatu zen azaldu du, datu objektiboak eskuan izan eta ikerketa dokumentatu eta xehea egin ondoren, Nafarroako trantsizioa «1975ean hasten den ibilbide zoragarritzat» kontatzen dutenen aldean, «iruzur handi baten eta frustrazio mingarri baten kronika» egin du. «Nafarroan trantsizioa

estatu arazo izan zen» baieztatzera iritsi arte. Bihar azalduko ditu egileak berak ondorio horretara iristerainoko datu eta nondik noarakoak.

Floren Aoiz (Tafalla, 1966) Euskal Herriaren historiaren ikerlari eta jakitun sutsua da. Irakurle amorratua izaki, Herri Batasuneko politikari ohia (Foru-parlamentari, Mahai Nazionaleko bozeramaile, espetxeratua...), Nafarroako iragana aztertzen murgilduta dago: «gure herriaren benetako historia» zein izan den ikertzen, argitzen eta argitaratzen dihardu.

*La vieja herida* (Txalaparta, 2002) izan zen historia alorreko bere lehen argitalpena. Hartan, 1512ko Espainiako konkistatik foru hobekuntza bitarteko



Liburuaren azala. HITZA

epea aztertu zuen, egindako historiaren manipulazioa agerian utziz. Iaz *El jarrón roto* argitaratu zuen, hau trantsizioari buruzkoa. Bere lehen eleberria prestatzen ari da egun. *Gara* egunkarian zutabegilea ere bada.

## ARESO ▶

# Zuhaitzak auzolanean aldatuko dituzte etzi

J. ASTIBIA

Etzi auzolan eguna izanen dute Areson: goizean, 09:30ak, aldera Plaza Zaharrea elkartu eta Larre Borda aldera joanen dira aldabiora.

Han basoa atera berria dute, eta birlandaketari ekinen diote: zumarrak sartuko dituzte. Herriar guztiak gonbidatuta daude auzolanean parte hartzera. Hori bai, eurria egiten badu, lan-saioa atzeratu egingen dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietako bazkaria antolatu dute martxoaren 12an. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84an edo 677 43 89 49an.  
**Tolosa.** Iraupen eskia behar den bezala ikasteko, 1992-93-94-95 urteetan jaiotako gazteboentzat ikastaroa antolatu du Alpino Uzturre elkarteak, martxoaren 4-5 eta 11-12 asteburuetan, Somport-Candanchun. Informazio gehiago eta izen-ematea 685 776 504an.

**INAUTERIAK**

**Amezketak.** Talai-dantza entseguak. Asteazkenetan eta ostiraletan, 20:30etan, Gazte Taldeko lokalean.  
**Anoeta.** Kaldereroetako entseguak. 19:00etan, Kulturunean.  
**Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak. Gaur, 20:00etan, Kultur Etxean; eta hilaren 21ean, 20:15etan, Musika Eskolan.  
**Tolosa.** Aiz-Orratz elkarteak 7 urteko haurrei dei egin die haur danborradan mikelteaz ateratzeko. Interesa duenak elkartera agertu behar du, gaur edo bihar, 19:00etan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Belautza.** Ainhoa Arregiren argazki proiektzioa. 20:00etan, Kultur Etxean.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** Rebeca. Bihar, 19:00etan, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Plaza, M. Elbarren, 35. 112.  
 Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitza-ren errepasoa, albisteak, lehiaketa, elkarrizketak, disko eskainiak...  
 21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari, Matraiako Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
 22:00-23:00. Gau bero musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Pixkanaka mozorrotzen

**TOLOSA ▶** Gero eta egun gutxiago falta dira Inauterietarako; herriko dendetako erakusleihoak ere kutsatu dira dagoeneko festa giroaz




Koloretako puxikak, maskarak, txilabak, konfetiak, serpentinak... ikus daitezke dendetan. L. MONTES

**ERREDAKZIOA**

**M**erkealdia dioten karteltxoekin nahasten dira oraindik zenbait erakusleiotan, baina gero eta gehiago dira Tolosako dendetan. Inauterietako apaingarriak dira. Herria pixkanaka mozorrotzen ari den seinale.

Kolore guztietako eta forma anitzetako puxikak, maskarak, txilabak, konfetiak, serpentinak, galtzerdiak, Kaldereroetako gonak, zapiak, lepokoak... Erakusleio osoa Inauteri bihurtu dute hainbat dendek, festa horietarako materiala saltzen dutenek, batez ere. Besteetan, ohiko produktuak eta Inauterietako apaingarriak nahasten dira, lehenak festa giroaz kutsatu izan balira bezala.

Zezen-plazan zintzilikatu dituzte dagoeneko koloretako zapiak. Eraikin publikoak eta etxeko balkoiak ere laster apainduko dituzte tolosarrekin. Gero eta gutxiago falta baita.



Zezen-plazan zintzilikatu dituzte koloretako zapiak; laster, eraikin publikoak eta etxeko balkoiak ere koloretsu agertuko dira. L. MONTES

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
 Lorea Lampre Beloki (Alegia).  
 Gaur 2 urte. Etxeko larrosaboarri aitak, amak eta Leyrek.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara:**  
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
 Udaltzeko bulegoa - **LEITZA**  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**